

Juan Frantzisko Petriarena
Xenpelar (1835-1869
Errenteria, Gipuzkoa)

BETROIARENA

Doinua: Betroiarena A
Neurria: Neurri berezia. Bederatzi puntukoa
Testuaren iturria: Antonio Zavala. 1969. Xenpelar bertsolaria. Auspoa. 293

Errenterian Xenpelar bertsolariaren bizilaguna zen Fermin Errazkin itzaina (idiekin ibiltzen zena). Ostegun batez, feri-egunez, joan da Hernaniko azokara Fermin eta "betroia" edo behia erosi dio Inazio delako bati, 19 ezkutu ordainduta. Behi ona omen zen erosi zuena, baina Fermin tabernan sartzean, behia trukatu egin zioten eta xaxtar bat jarri. Betroi trukatu horrekin eliz ataritik pasatzean apaizek barre egin zioten: halakoxea zen azienda hura!

Gertaera kontatzeko bertso sorta umoretsu hau jarri zuen Xenpelarrek.

1 Bertso berriak jartzen
orain naiz **abiyan**
predikatzera nua
Euskal **Herriyan**
betroi bat hartu nuen
Hernanin **feriyan**
galantzia egingo
zuela **agiyan**
tristura **begiyan**
beti **auleriyan**
ez haren **premiyan**
nere **fameliyan**
*Xenpelar*rek dakizki
Errenteriyan.

2 Ostegun joan danian
hamabost **Hernanin**
betroiaren tratua
genduen **egin**
Inazio saltzaile
erostuna **Fermin**
hemeretzi ezkutu
genion **eragin**
sabelian du **min**
inork ase **ezin**
artoari **muzin***
ez du nahi **edozin**
atzetik behar ditu
zazpi **medezin***

3 Informe txarrak dira
horrentzat **auzotik**:
espalda* ateria
urgun* **besotik**
eztula ta antsia
ukuilu-**zokotik**
desterratuko nuke
nik nere **bototik**
amarra* **lepotik**
grilluak* **orpotik**
makilaz **ondotik**
jotzen det **gogotik**
ez zaio ajolarik
ezerengatik.

* ***muzin*** = *baztertu, uko egin*
medezin = *botika*
espalda = *bizkarra*
urgun = *herren*
amarra = *lepotik lotzeko soka*
grilluak = *orpotik lotzeko burnizko uztaiak*

4 Oraindik gaztia da:
hogeita sei **urte**
ernari* omen ditu
bost **hilabete**
nik ez diot igertzen
hala esan **dute**
gezurra baldin bada
engainatu **naute**
haragia **aparte**
hezurretan **torpe**
zainak dauzki **fuerte**
zeinek nahi du **merke**?
Zikiro* baten truke
emango **nuke**.

5 Kara* iguala du
aurrian ta **atzian**
basurdia dirudi
zutik **jartzian**
konsuelo bat daukat
nere **bihotzian**:
bizirikan gelditzen
bada **hilbeltzian***
hori **umatzian***
esnia **etxian**
gazta **abatsian***
gazura* **arratsian**
belarrak gizenduko
du **maiatzian**.

6 Begi bat itsua du
adar biak **motzak**
kriseilua* dirudi
haren **kokotzak**
ikaratutzen gaitu
eztularen **hotsak**
burlaka hasi zaizka
elizatik **hontzak***
sano dauzka **hortzak**
hagina **zorrotzak**
tristura **bihotzak**
dantzan dabil **hotzak**
ez dio onik egin
leku **arrotzak**.

7 Borroka dabilela
juan zaizka **adarrak**
ezin sujetaturik
bere **indarrak**
lurrera botatzen du
euliaren **kargak**
talentu onak dauzka
nere betroi **zaharrak**
jendiaren **farrak**
ez dirade **txarrak**
ganadu **elbarrak***
juntura **iharrak**
burruntzia* dirudi
haren **bizkarrak**.

8 Burua jarri zaio
lurrera **begira**
belarriak zintzilik
ai zer **segira**!
Albaitero guziak
ikaratzen **dira**
zeinek sendatuko du
holako **herida***?
Bajatzen ari da
hirutatik **bira**
hau nere **perdira***
nork nahi du **erdira**?
Baina ez det eman nahi
Euskal Herrira.

* ***ernari*** = *umedun*
Zikiro = *ahari zikiratua, irendua, kastratua*
Kara = *Aurpegi*
hilbeltzian = *urtarrilan*
umatzian = *ernari, umedun gelditzean*
abatsian = *jezteko ontzian*
gazura = *gazta egiterakoan esne-mamitik bereizten den ura edo sueroa*
kriseilua = *argi ontzia*
hontzak = *elizako apaizei deitu die hontzak*
elbarrak = *elbarriak*
burruntzia = *haragia erretzeko burni ziria*
herida = *zauria*
perdira = *galera*